



Nicolas Redondo, artxiboko irudi batean.

Redondo: «Fronteak gainditzea da gure helburua»

Agentziak / Bilbo

NICOLAS REDONDO PSE-EEko idazkari nagusiak adierazi du bere alderdiaren helburua «fronteak gainditzea» dela, ez boterearen banaketa. «Hemen egiten ari den politika aldatu nahi dugu, fronteak gainditu», adierazi zion Radio Nacional irratian.

«Alderdi guztiekin bildu gara, eta jakinarazi diegu gure asmoa dela fronteak gainditzea. EAJ prest bada, zergatik ez beraiekin itun global bat egin, itun horrek ez badu PP edo HB baztertzen?», adierazi zuen.

Rodolfo Ares Redondoren alderdikideak, bestalde, adierazi du PSE-EEK ez duela «ezer» baztertzen, eta aukera guztiak «zabalik»

daudela. Aukera horiek guztiak bi dira, Aresen arabera: EAJ-EA eta PP. Lehen egingo balute, Aresen pentsatzen du Jaurkitzen sartzea ekarriko lukeela eta horrekin batera abertzaleen eta ez abertzaleen arteko harremanen «beste aro bat».

EHrekin itunak egitea baztertu zuen Aresen, Alfredo Perez Rubalcaba PSOEko komunikabideetako arduradunak bezala. Aresen esan zuen ezinezkoa dela EHrekin hitzarmenak egitea abertzaleek biolentzia «arbuiazen ez dutelako». «Ez gara EHrekin arituko, ezta bihar demokrata-kristau egitea erabakitzen badute ere», adierazi zuen Rubalcabak.

EAJ: «Garrantzitsuagoa da itun politikoa kargu banaketa baino»

Akordioak Hegoaldeko lau herrialdeetan nahi dituela dio



SANTIAGO JIMENEZ / EFE

Ostiral
iluntzean
Bilbon
eginiko
EAJren
Batzar
Nazionalako
irudia.

Efe / Gasteiz

Akordio «zabalak» nahi ditu EAJk. Hala adierazi zuen atzo Ricardo Ansotegi EAJko EBBko idazkariak, eta jakinarazi du alderdi jeltzaleak karguen banaketari baino garrantzi handiagoa emango diola itun politikoari. Nafarroan PSN gobernuan egotea gustatuko litzaiokeela adierazi du.

HEGO Euskal Herrian boz gehien jaso duen alderdia dela gogoratu du Ansotegik, eta, horregatik, itunak egite-

ko ardura dagokiola azpimarratu du. Alderdiekin izan dituzten harremanetan, jeltzaleek jakinarazi diete Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan nahi dituztela akordioak. Jeltzaleek hala adierazi diete EA, PSE eta EHri.

«Negoziazioetan aztertzen ari gara ea gauza garen lau lurraldeetan akordioak egiteko, baina oraindik ez dugu zehaztu non bai edo non ez», adierazi zion Efe agentziari.

Itun politikoaren garrantzia azpimarratu zuen EBBko idazkariak. «Akordioak bi atal ditu, itun politikoa eta boterea bera. Eta une hauetan gehien inporta zaiguna da

nola heltzen diogun bake prozesuari, eta hori alkate baten edo diputatu nagusi baten izendapena baino garrantzitsuagoa da. Bake prozesuaz, erabakiak hartzeko euskal esparruaz edo lurraldetasunaz adostasuna lortu behar dugu, hori da egin behar duguna», adierazi zuen.

Nafarroan PSNren alde egiteko prest legoke alderdi jeltzalea. «Nahiko nuke Nafarroan PSNk lideratzea Gobernuak. Gu prest geundeke haiek zuzendutako Gobernu laguntzeko», esan zuen, eta horren truke beste erakunde batzuetan sozialisten laguntza eskatuko dutela.

EAK dio PSE-EErekin akordioa egitea «zaila» dela

Efe / Gasteiz

RAFAEL LARREINA Eusko Alkartasunako idazkariorde nagusiak adierazi du PSE-EErekin badaudela puntu komunak, baina gobernagarritasuna bermatzeko akordioa beraiekin egitea «zaila» izango dela ohartarazi du. EAKo buruzagiak EAJ, PSE-EE eta EHko kideekin bildu dira akordioaren aukerak haztatzeko.

Koherentzia ideologikoa, lurraldetasuna eta estrategia komuna eskatu ditu Larreinak ituna egiteko. «Ezin daitezke gauza arrarok egin, PSE-PP ituna bezala. Horrek ez luke kohesio-

rik izango», arrazoitu du. Gainera, Nafarroa itunean sartu behar dela esan du EAKo idazkariorde nagusiak. Halaber, bake prozesu aurrera joan dadin «estrategia komun bat» ezinbestekoa izango dela gogoratu du.

Oinarri horietan PP ez dela sartzen esan du Larreinak. «PPrekin ez gaitu elkartzen ez alde ideologikoa, ez lurraldeari buruzko irizpideak. Izan ere, UPNk beti ezezkoan jotzen du», adierazi du. Sozialistek, bestalde, «izpiritu eraikitzailea» dutela uste du EAKo kideak.